

BAGARE. ARABAKO KULTUR ARLOKO ESTRATEGIA EUSKALTZALEAK SUSTATZEKO IKERKETA BEKA.

OINARRIAK

XEDEA

BAGARE. Arabako kultur arloko estrategia euskaltzaleak sustatzeko ikerketa bekarako deialdi honen xedea lurraldeko euskararen normalizazioan eta biziberritzean eragina izango duten estrategia kulturalak eraikitzen lagunduko duen ikerketa bat diruz laguntzea da.

Ikerketaren ondorio gisa, etorkizun hurbil batean euskal kulturak Araban aplikatu daitezken sustapen estrategiak, aplikazio metodologiak, programazio proposamenak edo begirada berritzaileak iradoki beharko dira.

IZAERA

Beraz, Arabako euskararen biziberritzearen egoera zehatza eta haren berezkitasunak abiapuntu hartuta, BAGARE deialdiak euskararen eta euskal kulturaren arloetan ikerketa bat sustatzearen helburuari heltzen dio.

Deialdi honetan, etorkizunera begiratuko dioten ikerketa, proposamen eta strategiak lehenetsiko dira.

Zentzu horretan, Izaskun Arrue Kulturgunearen eta Lazarraga Kultur Elkartearen helburuekin bat etorrita, **Arabako euskalgintzako eta kulturagintzako eragileen jarduna eta parte hartzea** kontuan hartu beharko da.

HARTZAILEAK

Euskal Herrian bizi, lan egin edo ikasten duten eta kulturaren arloan ikerketa bat garatu nahi duten pertsonak bilatuko dira.

ORDAINSARIA ETA IRAUNALDIA

Ikertzaileak 4.000€ (BEZ barne) jasoko du eta sei hilabete izango ditu ikerketa hori burutzeko, deialdian hautatua sortatu den ikerketa aurrera eramango duela sinatutako egunean zenbatzen hasia.

NORENTZAT

- Adinez nagusi den edozein pertsona aurkeztu ahal izango da.
- Eskatzaileak pertsona fisikoak banaka, edo pertsona fisikoen taldeak izan daitezke. Era berean, irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta enpresek ere parte hartu ahal izango dute.
- Eskatzaile batek baino gehiagok ikerlana batera aurkezten badute, horren titularkideek euren arteko bat izendatu beharko dute antolatzaileen aurrean koordinatzaile eta ordezkari izan dadin.
- Euskal filologian, kulturean, soziolinguistikan, kazetaritzan, antropologian edo bestelako gizarte zientzietan izandako aurretiko esperientzia eta lanak baloratuko dira.
- Gutxienez, Euskararen C1 ALTE ezagutzamaile ziurtatzen duen honako egiaztagiriren baten jabe izatea: HABEren C1 maila; EGA; IVAPen 3. HE; HEOren C1 maila.
- Parte hartzeko ez da ikertzaile-titulurik edo doktorego-titulurik eskatuko; bai, ordea, estrategia kulturalak ikuspegi teoriko baten bidez lantzeko motibazioa eta konpromisoa.

- Proiektuaren garapena, aurkezpena, prozedura eta Izaskun Arrue Kulturguneko langileekin izango den harremana euskaraz izango da.
- Deialdi honetako dirulaguntza beste laguntza batzuekin uztargarria da. Hala ere, aurkeztutako ikerketa originala izan behar du, eta ezin izango da aurrez beste ikerketa batean garatutako eduki bera erabili. Beste ikerketa batzuekin oinarri edo ikerketa-ildo komunak partekatu daitezkeen arren, proiektu honek bere ekarpen propioa egin behar die deialdi honetako helburuei eta bereizgarria izan beharko du.

KONTUAN HARTUKO DIRA

- Euskarazko kultur sorkuntza sustatuko dituen estrategiak ikertzea.
- Euskararen erabilera bultzatzeko eta aberasteko kultur arloko estrategiak garatzea.
- Gasteizko eta Arabako euskarazko kultur adierazpideei erakusleihoak eskaintzeko estrategiak ikertzea.
- Euskal kultura sorkuntza ikertzea.
- Gasteiz eta Araba, haren berezkitasunak barne-hartuz, Euskal Herri barruko lurralde zehatz gisa aztertzea.

EPEA ETA AURKEZTEKO MODUA

- 2025eko azaroaren 3ra arte aurkeztu ahalko dira izen-emateak, deialdiko inprimakia osatuz.
 - Epe horretatik kanpo jasoko diren eskaerak aukeraketa prozesutik kanpo geratuko dira.
 - Eskaera guztiak dokumentu bakar batean jasoko dira PDF formatuan eta 30Mb-eko tamaina izango du gehienez.

DOKUMENTAZIOA

Dokumentu horretan bertan txertaturik joango da hurrengo informazioa:

- Eskatzailearen datuak (izen-abizenak, jaioteguna, jaioterria, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa).
- NAREN fotokopia edo IFK enpresen kasuan.
- Euskarazko CI tituluaren egiaztagiria (edo baliokidea).
- Eskatzailearen curriculum (taldean aurkeztuz gero kide guztien curriculum txertatu beharko da).
- Ikerketaren memoria (10 orrialdetan, gehienez): laburpena, Ikergaia, helburuak, egokigarritasuna, metodologia, baliabide teknikoak, kronograma, ikerketaren osteko aplikagarritasuna eta ikertzailearen edo proiektua aurrera eramateko ikerketa taldearen ibilbidea.
- Ikerketa honen baitan, derrigorrezkoa izango da ikerketaren emaitzak jendaurrean aurkeztea eta horretarako aurkezpen ireki bat eginez Izaskun Arrue Kulturgunean.
- Ikerketaren helburuekin bat datozen jarduera osagarriak antolatzeko aukera proposatu ahalko du ikertzaileak, beti ere, bere ikerketaren garapenarekin harremanduta badaude. Jarduera horien ekoizpena errazteko, espazioak eta beharrezko materialak eskuragarri jarriko dira; hala ere, dirulaguntzatik kanpoko bestelako gastuak (hala nola ordainsari edo cachet-ak) dirulaguntzaren ordainsaritik estali beharko dira. Ikerketaren baitako jarduerak askotarikoak izan daitezke, besteak beste: hitzaldiak, kontzertuak, ikastaroak, lantegiak, aurkezpenak, ikuskizunak, proiektzioak edota antzeko ekimenak.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Jasotako proiektuak Lazarraga Kultur Elkarteak aukeratutako epaimahai profesional batek baloratuko ditu. Izaskun Arrue Kulturguneko udal arduradunak, estrategia euskaltzaleetan aditua den eta Gasteizko kultur eskaintza gertutik ezagutzen duen epaimahai batek baloratuko ditu.

Izaskun Arrue Kulturguneko teknikari batek bitartekari lanak burutuko ditu, baina ezingo du puntuazio prozesuan parte hartu.

Epaimahaikideek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela aztertuko dute eta eskabideak hurrengo irizpide hauen arabera baloratuko dituzte:

1) Ikerlanaren esparru teorikoaren planteamendua: oinarri gisa hartzen dituen teoriak eta aurrekariak (gehienez 10 puntu).

2) Ikerlanaren planteamendu metodologikoa: Ikergaiaren planteamendua: ikerketa galderak, helburuak, metodologia orokorra eta ikerketaren fase bakoitzerako metodoa (gehienez 30 puntu).

3) Ikerlanaren bideragarritasuna eta kronograma (gehienez 10 puntu)

4) Berrikuntza eta garaikidetasuna: bestelako ikerketa batzuk oinarri hartu izana, eta lekuan lekuko orainaldian txertatzeko duen gaitasuna (gehienez 20 puntu).

5) Aplikagarritasuna: ikerketan zehar garatutako euskararen normalizazioan eta biziberritzerako kultur arloko strategiak praktikan jartzeko aukera (gehienez 20 puntu).

6) Pertsonaren edo taldearen ibilbidea (gehienez 10 puntu).

7) Epaimahaia hautagaiei elkarrizketa egiteko aukeraz baliatu ahalko da. Elkarrizketan epaimahaikideek galderak egin ahalko dizkiete hautagaiei, bekari dagozkion ezaugarri eta alderdiei buruz.

Epaimahaiak saria eman gabe utz dezake, aurkeztutako proiektuek gutxieneko kalitate ezaugarriak betetzen ez dituztela erabakiz gero.

EBAZPENA

Ebazpena helbide elektroniko bidez jakinaraziko zaie parte-hartu duten pertsona guztiei.

BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA ORDAINKETA

- Deialdi honetara bideratutako baliabide ekonomikoak Izaskun Arrue Kulturagunearen 2025ko aurrekontu-ekitaldiaren kontura izango dira, eta kopurua **4.000€-koa izango da**, guztira.
- Bekadunak 4.000€ jasoko ditu orotara (**BEZ barne**) **atxikipenarekin** fakturatuko dena.
- Zenbatekoaren **%50 beka hasi aurretik** ordainduko da, esleipendunak hitzarmena sinatu eta 10 lanegunetara, eta gainontzeko **%50 lana amaitutakoan, aurkeztutakoan eta epaimahaiak** ontzat emanetarakoan.
- Ordainketak indarrean dauden zerga-arauek ezartzen dituzten atxikipenen mende egongo dira.

IKERKETA BEKAREN ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- Bekadunak esleitu zaion ikerketa beka hamar egunetan onartu beharko du idatziz.
- Bekadunak eta Lazarraga Kultur Elkartek beka esleitu eta hamar egun igaro aurretik beka burutzeko hitzarmen bat sinatuko dute. Honetan, bi parteek adostutako konpromisoak beteko dituztela hitzartuko da.

- Ikertzaileak ikerketa bekaren garapena erakutsi beharko du bi hilabete behin, behin betiko emaitza entregatu aurretik.
- Ikertzaileak ikerketa PDF formatuan bidali beharko du kultura@lazarraga.eus e-posta helbidera eta inprimatutako kopia bat aurkeztu beharko du aurrez Izaskun Arrue Kulturagunean, Errementari kalea 30 (Gasteiz - 01001) helbidean.
- Egindako lana argitaratuz gero, argitalpen guztietan, Izaskun Arrue Kulturagunearen eta bere babesleen laguntza jaso dela azaldu behar da. Horretarako, erakundearen logoak txertatu beharko dira publizitate-euskarrian, Izaskun Arrue Kulturaguneko Komunikazio sailetik ezarritako irizpideen arabera.
- Ikerketaren egileak, hau da, dirua jasotzen duenak, tokian tokiko ogasunak ezartzen dituen irizpide eta arauak bete beharko ditu.

EZ BETETZEAK ETA ITZULTZEKO PROZEDURA

- Beka jaso duen banakakoak, edo taldeak, bekari uko egingo balio, edota beka osatzera helduko ez balitz, oinarrietan adierazitako eskubideak galdu eta dirulaguntza gisa jasotako diru guztia itzuli beharko luke.
- Ikerlanaren amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada, edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez balu, justifikazio edo gairiditu ezinezko arrazoirik gabe, antolatzaileek saria itzultzeko eskatuko dio sarituari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren edo ez.
- Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako lana aurkezteko azken epea bukatu baino lehen, eta antolatzaileek eskatu gabe, bekadunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.
- Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako lana entregatzeko azken epea bukatuta antolatzaileek eskatu ondoren saria itzulita, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, eta baita dagozkion berandutze interesak.

LEGE-OHARRAK

Deialdian parte hartzearekin batera, oinarriak onartzen direla, eta Lazarraga Kultur Elkartearen lege-oharrak onartzen direla adieraztenda.

<https://lazarraga.eus/pribatutasun-politika/>

HARREMANA ETA KONTAKTUA

Deialdiari, garapen-faseei eta proiektu motari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, eta Bagare deialdiaren gaineko beste argitasun eta kontu praktiko batzuk lortzeko, helbide honetan jar daitezke interesatuak harremanetan antolatzaileekin:
[**kultura@lazarraga.eus**](mailto:kultura@lazarraga.eus)